



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

VI.ERANSKINA: EKONOMIA SORTZAILEA

Urtea :2023 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Ekonomia sortzaileak eraldatzeko duen balioa sustatzea aukera eta balio erantsiko esparruak sortzeko eta garatzen laguntzeko.

ENTITATE ONURADUNAK

Entitate onuradunak izango dira:

- Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7 oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateren batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua



ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta sozietate publikoak, 2.1 b) eta c) oinarrian ezarritako entitateak salbu.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz laguntzekoak izango dira ekonomia sortzailearen ikuspegitik balioa sortzeko diren eraldaketako proiektuak garatzeko jarduketak, honako helburu hauek dituztenak:

- Enpresa proiektu eta/edo jarduera berriak bultzatzea ekonomia sortzailearen eremuan.
- Pertsonetan oinarritutako diseinua txertatzea (erabiltzaileak eta bezeroak eraldatzeko prozesuak, enpresetako eragile aktibo gisa).
- Ekonomia sortzaileak sortutako aukeretara egokitutako estrategiak diseinatzea.
- Lankidetzaren sareak sortzea, garatzea eta/edo horietan parte hartzea.
- Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere.
- Sinergiak sortzea eta hibridatzea jarduera sektore desberdinen artean (ekonomia sortzailearen sektoreen artean eta ekonomia sortzailetik kanpo dauden sektoreen artean).
- Balio erantsiko negozioak eta jardunbide egokiak modelizatzea
- Balio proposamen berriak egituratzea ekonomia sortzailearekin hibridatuz.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta VI.eranskina - 5.oinarri aldatua).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 80 izango dira.

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.



BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderekin, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2023ko martxoaren 30ean, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2024ko maiatzaren 31.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2024ko ekainaren 30a.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2023ko oinarri arautzaileak eta deialdia: IV.ERANSKINA - Ekonomia sortzailea balioestea. (2021/06/15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz onartu zen - 2021/06/18ko GAO 114 zk. eta Diputatuen kontseiluaren 2022/05/10eko eta 2023/02/07 akordioa baten bidez aldatu - 2022/05/20ko GAO 95 zk. eta 2023/02/16ko GAO 32 zk.)

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ekonomia-sortzailea>
- Eskatera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus